**EZ OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO EXTRAORDINARIO**

**2019KO APIRILAREN 1A / 1 DE ABRIL DE 2019**

**BERTARATUAK / ASISTENTES**

<table>
<tr>
<td><u>IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL</u><br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna</td>
<td><u>ALKATE-UDALBURUA / ALCALDE-PRESIDENTE</u><br><br>D. Miguel de los Toyos Nazábal jauna (PSE-EE)<br><br><u>ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE</u><br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna (PSE-EE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna (PSE-EE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea (PSE-EE).<br>D. Arcadio Benítez Dávila jauna (PSE-EE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna (PSE-EE).<br>D. Jon Iraola Iriondo jauna. (PSE-EE).<br><br><u>ZINEGOTZIAK / CONCEJALES</u><br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea (PSE-EE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea (PSE-EE).<br>Dña. Igone Lamarain Cobo andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Josu Cristobal Churruca jauna (Euskal Herria Bildu).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (Euskal Herria Bildu).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (Euskal Herria Bildu).<br>D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria elena Ibañez Anucibay andrea (Eibarko EAJ-PNV).<br>Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta andrea (Irabazi).</td>
</tr>
</table>

Eibarko hirian, 2019ko apirilaren 1ean, arratsaldeko bostak izanik, Udal Osoko bilkura egin zen ezohiko bileran, udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Penedo Eubieta jaunak eta Juez Garmendia andreak justifikatu dute beren ezin etorria.

En la Ciudad de Eibar, a 1 de abril de 2019 y siendo las diecisiete horas, se reunió en sesión extraordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente menciona-dos/as, habiendo justificado su ausencia el señor Penedo Eubieta y la señora Juez Garmendia.

Alkate-udalburu jaunak bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El Sr. Alcalde-Presidente declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

**GAI-ZERRENDA**

**ORDEN DEL DÍA**

**ATAL BAKARRA**

**PUNTO ÚNICO**

**Eibarko 2019ko Aurrekontu Orokorrari Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak eta Ana Isabel Alonso Peña andreak egin dizkioten alegazio-idatziak.**

**Udal Aurrekontuaren behin betiko onarpena.**

**Escritos de alegaciones presentados al Presupuesto General de Eibar 2019 por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea y Dª Ana Isabel Alonso Peña.**

**Aprobación definitiva del Presupuesto Municipal.**

**Aurrekontuari egindako alegazioak.**

**Alegaciones al Presupuesto.**

**Lamarain Cobo andrea** hasi da aipamena eginez, lehenik, Debabarreneko

La **Sra. Lamarain Cobo** comienza su intervención refiriéndose en primer

Orfeoiaren ordezkariak aurkeztutako alegazioari. Zehatzago, Kontu-hartzailearen txostenaren arabera, alegazioa ez litzateke onartzekoa izango; deigarria egiten zaio bi urte igarotzea interes kulturaleko elkarte gisa sartzea eskatu zuenetik eta orain arte erantzunik ez jasotzea. Hain zuzen, elkarteen zerrenda horretan inskribatzea da modurik onena dirulaguntza izendun bat eskuratzeko, hortaz, eskatzen du lehenbailehen egitea.

“La Plazoleta” auzo-elkarteak aurkeztutako alegazioari dagokionez, Kontu-hartzaile jaunak ere iritzi bera eman du, baina horrek ez du esan nahi elkarte horren eskaerak kontuan hartu behar ez direnik. Alegazio honekin, egiaztatu egiten da zein den gobernu-taldeak hartutako konpromisoen betetze-maila, ez bakarrik Txonta auzoarekiko, baita Eibarrekiko oro har. Hala, egiaztatu da lau urte hauetan udal gobernua ez dela gai izan langabezia-tasari eta desindustrializazioari aurre egiteko, eta eskatzen dio plan bat martxan jartzeko Eusko Jaurlaritzako bere bazkidearekin, EAJ-PNV taldearekin.

lugar a la alegación presentada por la representante del Orfeón de Debabarrena. En concreto, según el informe de Intervención, no tendría cabida, pero resulta llamativo que han transcurrido dos años desde que solicitó su inclusión como asociación de interés cultural, sin que hasta la fecha haya tenido respuesta. Precisamente, esa inscripción es el mejor modo para obtener una subvención nominativa, razón por la que solicita que se realice cuanto antes.

En lo que a la alegación presentada por la asociación de vecinos “La Plazoleta” se refiere, el Sr. Interventor también se ha pronunciado en el mismo sentido, lo que no significa que las peticiones de dicha asociación no deban tenerse en cuenta. Con esta alegación, se comprueba el grado de cumplimiento de los compromisos adquiridos por parte del equipo de gobierno, no solo respecto al barrio de Txonta, sino con Eibar en general. Así, se ha demostrado que en estos cuatro años el gobierno municipal no ha sido capaz de hacer frente a la tasa de desempleo y la desindustrialización y apela a la puesta en marcha de un plan junto con EAJ-PNV, su socio en el Gobierno Vasco.

Txonta auzoko egoera dela-eta, espero du zaharberritze-prozesuak bide beretik jarraitzea, baina galdetzen du zer gertatzen ari den gune horretako berroneratze integralarekin. Testuinguru horretan, duela hiru urte azterketa sozio-ekonomiko bat enkargatu zen, eta ondorio nagusia izan zen gune horretako auzotarrak bazterketa-arriskuan zeudela; horrek martxan jarri beharko zukeen makineria guztia egoerari buelta emateko. Bere iritziz, gobernu-taldeak ez die herritar guztiei tratu bera ematen, izan ere, beste modu batera jokatuko zuen baldin eta egoera hori herriko erdiguneko auzo batean gertatu balitz.

Eskatzen udal bulegoak bere zereginetako bat bete dezala, alegia, auzotarrei formazioa ematea, izan ere, aipatutako txostenean jasotzen den premia bat da.

Eginkizun dagoen beste puntu bat zaharberritzearena da, batez ere kontuan izanik dagoen industria-ondarea, kultur erabileretara bidera daitekeena, Euskal Herria Bildu udal taldeak bere garaian auzoa erakargarriago egiteko egin zuen proposamenaren ildotik. Baina, orain arte ez dakite kontuan hartu den ala ez.

Centrándose en la situación del barrio de Txonta, espera que el proceso de rehabilitación continúe por el mismo camino, pero se pregunta qué sucede con la regeneración integral de esta zona. En este contexto, hace tres años se encargó un estudio socio-económico cuya conclusión principal era que la población de esta zona se encontraba en serio peligro de exclusión; conclusión que debería haber puesto en marcha toda la maquinaria para darle la vuelta a la situación. En su opinión, el equipo de gobierno no concede el mismo trato a toda la ciudadanía, puesto que ya se habría actuado si esa situación se diera en un barrio del centro de la ciudad.

Continúa su exposición demandando que la oficina municipal cumpla con uno de sus cometidos, como es, impartir formación al vecindario, una necesidad constatada en el informe aludido.

La rehabilitación es otra de las asignaturas pendientes, sobre todo teniendo en cuenta el patrimonio industrial existente que podría destinarse a usos culturales, en la línea de la propuesta que formuló el grupo municipal Euskal Herria Bildu en su momento con el fin de hacer más atractivo el barrio. Pero, hasta el

momento desconoce si se ha tenido en cuenta.

Inbertsioei dagokienez, orekatuak izan behar dira herri guztian zehar eta une honetan ez da horrela, auzo batzuetan konpromisoen betetze-maila handiagoa delako beste batzuetan baino.

En cuanto a las inversiones, éstas han de ser equilibradas a lo largo de la ciudad y en este momento no es así porque en unos barrios el grado de cumplimiento de los compromisos es mayor que en otros.

Laburbilduz, Txontako zaharberritzeak bi hanka dauzka, bata fisikoa, martxan jarri dena dagoeneko, eta bestea soziala, garatu behar dena.

En resumen, la regeneración de Txonta presenta un soporte físico, que ya se ha puesto en marcha, y otro social, que es el que hay que desarrollar.

Horregatik guztiagatik, aurrekontuaren behin betiko onarpenari ezetza emango diote.

Por todo ello, votarán en contra de la aprobación definitiva del presupuesto.

**Mendicute Rodríguez jauna** harritu egin da gobernu-taldea bere gestioak aurrera ateratzeko egiten ari den izugarrizko esfortzuagatik, baina bi alegazio aurkeztu zaizkio udal aurrekontuari, izugarrizko esfortzu hori barik nahiko adostasun izango zutenak onartuak izateko.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** se sorprende por el esfuerzo sobrehumano que está desarrollando el equipo de gobierno por sacar adelante sus gestiones, pero se han presentado dos alegaciones al presupuesto municipal que, sin ese esfuerzo, habrían contado con el consenso suficiente para aprobarlas.

Halaber, nabarmendu du bere taldeak jakin duela, 2017ko martxoaren 20an Debabarreneko Orfeoiak

Así mismo, destaca que su grupo ha tenido conocimiento, a través del escrito presentado por el Orfeón de

aurkeztutako idazkiaren bidez, herriaren onerako elkarteen erregistroan inskribatzeko eskaera egin duela, eta ez zaiola erantzun; eta ez dakiela erantzun falta kontabilizatzen den Udalaren gardentasun-ratioetan, baina Kultura Batzorde Aholkularian ez dela gai horren berri eman. Eta, hortaz, ez litzaioke gustatuko kultur eta kirol elkarteen premien berri modu horretan jakitea.

Debabarrena el 20 de marzo de 2017, de su petición de inscripción en el registro de asociaciones de interés municipal y desconoce si la falta de respuesta se contabiliza en los ratios de transparencia del Ayuntamiento, dado que en la Comisión Asesora de Cultura no se ha dado cuenta de este asunto. Y, por tanto, desearía no tener conocimiento de las necesidades de las asociaciones culturales y deportivas de la ciudad por estos medios.

Testuinguru horretan, eskatu du bi alegazio horiek bereizita bozkatzea eta iragarri du bere taldeak dirulaguntzen eranskina aldatzeko proposamen bat erregistratu duela, zuzeneko dirulaguntza bat sartzeko Debabarreneko Orfeoiarentzat, bai eta orfeoia herriaren onerako elkarteen erregistroan sartzeko ere.

En este contexto, solicita la votación separada de ambas alegaciones y anuncia que su grupo ha registrado una propuesta de modificación del anexo de subvenciones para incluir una subvención directa para el Orfeón de Debabarrena, así como para que se proceda a su inscripción en el registro de asociaciones de interés local.

Bestalde, nabarmendu du Kontu-hartzaile jauna hemen ez egotea, eta agian hori izan daitekeela Alkatetza-Udalburutzak kasu honetan ere ez duelako bera kontuan hartu bilkura honen ordutegia finkatzeko.

Por otra parte, resalta la ausencia del Sr. Interventor que puede deberse a que desde la Alcaldía-Presidencia tampoco se ha contado con él para fijar la hora de celebración de esta sesión.

“La Plazoleta” auzo-elkarteak aurkeztutako alegazioa dela-eta, Kontu-

En cuanto a la alegación presentada por la asociación vecinal “La

hartzailetzak egindako txostenaz harago, azpimarratu du benetan garrantzia duena zera dela: elkarte horrek urtero egiten dizkiola alegazioak udal aurrekontuari, agerian utziz Udaleko kudeatzaileekin dagoen konexio falta. Bat dator alegazio horien edukiarekin, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ekonomikoek erraztu egiten dutelako finkatzen diren etxebizitzen eraberritzea, baina eginkizun geratzen da Txonta auzoko biziberritze urbanistiko, ekonomiko eta soziala.

Plazoleta", más allá del informe de Intervención, destaca que lo realmente importante es el hecho de que esta asociación anualmente presenta alegaciones al presupuesto municipal, lo que pone de manifiesto un problema de conexión con los gestores del Ayuntamiento. Comparte el contenido de esas alegaciones porque las ayudas económicas del Gobierno Vasco facilitan la rehabilitación de las viviendas que se consolidan, pero queda pendiente la regeneración urbanística, económica y social del barrio de Txonta.

Hori guztia kontuan hartuta, duela gutxi Udalbatzak proposamen bat onartu zuen Txontako Mahaia deitzea eskatuz etorkizuneko hirigintza-antolamendu bati buruz eztabaidatzeko xedez; planeamenduak honako eginkizunak izango ditu: bideen arazoa konpontzea, aparkalekuen egoerari aurre egitea eta erabakitzea ea eraikinen ordezkapen bortitz bat hautatzen duen, ondare arkitektoniko eta industriala eraitsiz, edo beste biziberritze bat hautatzen duen, auzoko identitatea errespetatuz, dauden eraikinak berrerabiliz eta apustu eginez kultur eta sormenezko industrien alde auzoaren ardatz eta eragile gisa. Bere taldeak azken aukera horren alde egin eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen du.

Teniendo en cuenta todo ello, el Pleno aprobó recientemente una propuesta mediante la que se instaba a convocar la Mesa de Txonta con el fin de debatir sobre un futuro planeamiento urbanístico que debe resolver un problema de vialidad, de aparcamiento y que ha de decidir si opta por la sustitución agresiva de la edificación, derribando el patrimonio arquitectónico industrial o bien por otro tipo de regeneración más respetuosa con la identidad del barrio, reutilizando los edificios existentes y apostando por las industrias culturales y creativas como eje y motor del barrio, opción por lo que apuestan y se comprometen a llevar cabo.

**Aguirre Unceta andreak** berretsi egin du Ogasunaren Lan Batzordean esandakoa eta esan du bi alegazioak baztertzearen kontra dagoela, ez dagoelako horretarako motibo nahikorik.

La **Sra. Aguirre Unceta** se reafirma en lo dicho en la Comisión de Trabajo de Hacienda y manifiesta su oposición a la desestimación de ambas alegaciones puesto que no existe motivo fundado para ello.

Debabarreneko Orfeoiak aurkeztutakoari dagokionez, uste du zuzendu dela udal erregistroan inskribatu ez izanaren akatsa eta uste du funtsezkoa dela Eibarko 24 pertsonak osatutako kultur elkarte bati laguntzea.

En lo referente a la presentada por el Orfeón de Debabarrena, entiende que ya se ha subsanado el error de la falta de inscripción en el registro municipal y considera fundamental apoyar a una asociación cultural integrada por 24 personas de Eibar.

“La Plazoleta” auzo-elkarteak aurkeztutako alegazioa dela-eta, erabat ados dago edukiarekin; batez ere premia ikusten du aurrekontu-partida bat jartzeko etxebizitzen eraberritze-obrak hasten direnean Txontako kalea egokitzeko, eta xede horretarako ez da egokitzapen-planik aurkeztu.

En cuanto a la alegación presentada por la asociación vecinal “La Plazoleta” comparte plenamente el contenido de la misma, sobre todo en la necesidad de contar con una partida presupuestaria para la adecuación de la calle Txonta para cuando se inicien las obras de rehabilitación de las viviendas y tampoco se ha presentado un plan de adecuación del barrio para lograr este fin.

Batez ere nabarmendu nahi du lokal sozial baten beharra eta baita proiektu kultural baten premia ere, arima emateko gaur egun degradatuta dagoen baina

Desea destacar sobre todo la necesidad de habilitar un local social y desarrollar un proyecto cultural como medio para dotar de alma a un barrio hoy

Eibarren erreferente ekonomiko izan den auzo bati.

Beraz, alegazioak aurkeztu dituzten pertsonen ordezkaritza-ahalmenari buruzko zalantzak argituta, bi elkarteei laguntzearen alde azaldu da.

degradado pero que ha sido referente económico de Eibar.

Por tanto, una vez solventadas las dudas sobre la capacidad de representación de las personas que presentaron las alegaciones, se muestra partidaria de apoyar a ambas asociaciones.

**Alkate-Udalburu jaunak** argitu du bakarrik egon dela zalantza Debabarreneko Orfeoiaren ordezkariari buruz, eta Kontu-hartzailetzaren txostenak bi alegazioak ezestea proposatzen duela, ez direlako sartzen Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusitako inpugnazio kausetan.

El **Sr. Alcalde-Presidente** aclara que únicamente han existido dudas acerca de la representante del Orfeón de Debabarrena y que el informe de Intervención propone la desestimación de ambas alegaciones porque ninguna de ellas encaja en las causas de impugnación previstas en la Norma Foral reguladora de las Haciendas Locales de Gipuzkoa.

Udalbilkura honen ordutegia dela-eta, esan du mezu elektroniko bat bidali zitzaiela udal talde guztiei, baina Euskal Herria Bilduren erantzuna bakarrik jaso zutela; gero, erabaki zen 17:00etan egingo zela, ordubete geroago Garapen Ekonomikoaren Batzorde Aholkulariaren bilera bat deituta zegoelako, eta luze joko zuela aurreikusten zen.

Respecto al horario de celebración de este Pleno, afirma que se envió un correo electrónico a todos los grupos municipales, recibiendo únicamente la contestación de Euskal Herria Bildu; posteriormente se fijó que se celebraría a las 17:00 horas porque una hora después estaba convocada una reunión de la Comisión Asesora de Desarrollo

Económico, cuya duración se preveía prolongada.

Nolanahi ere, iragarri du laster Debabarreneko Orfeoiaren ordezkariarekin bilduko dela eta ez du uste eragozpenik egongo denik egin diren arazoak gainditzeko.

A pesar de todo, anuncia que próximamente se reunirá con la representante del Orfeón de Debabarrena y prevé que no existirán impedimentos para salvar los obstáculos que han existido.

Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak “La Plazoleta” elkartearen izenean aurkeztutako alegazioari dagokionez, deigarria egiten zaio oposizioaren talde guztien babesa izatea, haietako bakar batek ere ez duenean Tueros jaunaren eskaerak jasoko zituen zuzenketak aurkeztu. Dena den, adierazi du aurrekontuetan badirela partidak energia-eraginkortasunari eta irisgarritasunari buruzkoak, Txontarentzat onuragarriak, eta konbentzituta dagoela aurrekontuaren indarraldian beste proiektu batzuk burutuko direla. Horren harira, Hirigintza Antolamendu Plan Nagusiaren berrikuspena aipatu du edo hainbat ikastetxerekin batera prestatzen ari diren formazio-lana, eta aitortu du bide luzea dutela aurretik, baina egitasmo horiek guztiak aurrera atera daitezen, soluzioa ez da foru araudia betetzen ez duten udal kontuei alegazio batzuk aurkeztea; horretarako, egokiagoa izango zen

Respecto a la alegación presentada por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, en representación de la asociación “La Plazoleta”, le llama la atención el apoyo de todos los grupos de la oposición cuando ninguno de ellos ha presentado enmienda alguna que se hiciera eco de sus peticiones. De todas formas, indica que en el presupuesto existen partidas sobre eficiencia energética y accesibilidad que benefician al barrio de Txonta y está convencido que a lo largo de la vigencia de aquél se llevarán a cabo otros proyectos. En este sentido, alude a la revisión del Plan General de Ordenación Urbana o el trabajo en formación con diversos centros y reconoce que aún queda mucho camino por recorrer, pero, para que todos estos proyectos salgan adelante, la solución no es presentar unas alegaciones a las cuentas municipales que no cumplen con las previsiones de la normativa foral; para

aurrekontu-zirriborroari zuzenketak aurkeztea eta negoziazio bati ekitea.

Beraz, ondo ikusten du alegazioak bereizita bozkatzea, baina, Kontu-hartzailearen kontrako txostena egonik, bere taldea udal teknikariaren irizpidearekin bat dator.

**Lamarain Cobo andreak** esan du gobernu-taldearen ekimen faltak eraman zuela Euskal Herria Bildu udal taldea osoko zuzenketa bat aurkeztera aurrekontu-proiektuari. Salatu du udal talde guztiek dutela eskura 2016tik auzoaren azterketa sozio-ekonomikoa, non esaten den auzo pobretu bat dela bazterketa-arrisku larrian dagoena, eta orain arte ez dela ezer egin egoerari buelta emateko.

Halaber, kritikatzen du soluzio gisa bakarrik zementuan pentsatzea, eraginkorragoa litzatekeenean herritarren esku tresnak jartzea auzoaren ahalduntzea eta laneratzea ahalbidetzeko; beste alternatiba batzuk izan litezke auzoaren kohesioa lortzea kulturaren bidez, edo zentro zibiko bat egokitzea auzokoen bilerak egiteko edo bertako auzotarrak izatea auzoaren historia

ello, hubiera sido más adecuado presentar enmiendas al borrador del presupuesto y comenzar una negociación.

Por tanto, muestra su parecer favorable a votar por separado cada alegación, pero, al contar con informe negativo del Sr. Interventor, su grupo respaldará el criterio del técnico municipal.

La **Sra. Lamarain Cobo** afirma que la inacción del equipo de gobierno llevó al grupo municipal Euskal Herria Bildu a presentar una enmienda a la totalidad al proyecto de presupuesto. Denuncia que todos los grupos municipales disponen desde 2016 del estudio socio-económico en el que se concluye que se trata de un barrio pobre en grave riesgo de exclusión y hasta la fecha no se ha hecho nada por revertir esa situación.

También critica que únicamente se piense en el cemento como la solución idónea, cuando sería más eficaz poner a disposición de la ciudadanía herramientas que posibiliten el empoderamiento del barrio y el acceso al mundo laboral; otras alternativas podrían ser su cohesión a través de la cultura, o habilitar un centro cívico para reuniones vecinales o dejar que sean sus habitantes los encargados

industriala balioan jartzearen arduradunak, eraikin industrialak zaharberrituta.

de poner en valor la historia industrial del barrio mediante la regeneración de sus edificios industriales.

Laburbilduz, uste du gobernu-taldeak beldurra diola ahalduntze sozialari edo auzokoen boteretzeari eta ez direla egoera aldatzeko tresnak errazten, eta gogorarazi ditu aurreko bilkura batean esan zituen hitzak, salatuz auzo polit bat lor daitekeela, baina garrantzitsuena edukia dela.

En definitiva, entiende que el equipo de gobierno tiene miedo al empoderamiento social o vecinal y no se facilitan las herramientas para cambiar esta situación y recuerda sus palabras en una sesión anterior en la que denunciaba que podía conseguirse un barrio estéticamente bonito pero lo importante es el contenido.

**Mendicute Rodríguez jaunak** zehaztu du Kontu-hartzailetzaren txostenek ñabardura bereizgarri bat dutela, izan ere, batean idazkia ez onartzea proposatzen da eta, bestean, planteatzen da izapidera onartzea gero ezetsia izatea proposatzeko. Arrazoi horregatik, berak ere ondo ikusten du alegazioak bereizita bozkatzea.

El **Sr. Mendicute Rodríguez** precisa que los informes de Intervención contienen un matiz diferenciador puesto que en uno se propone simplemente inadmitir el escrito y, en cambio, en otro se plantea admitirlo a trámite para posteriormente proponer para su desestimación. Por esta razón, comparte que ambas alegaciones se voten por separado.

Bere iritziz, ez dago zertan izan arazorik Debabarreneko Orfeoiari dirulaguntza emateko, orain arte egon den arren, zeren duela bi urte eskatu baitzuten eta ez zuten inolako erantzunik jaso.

A su entender, no debe haber mayor problema en conceder la subvención al Orfeón de Debabarrena, aunque hasta la fecha sí lo ha habido, porque la solicitaron hace dos años sin haber tenido respuesta alguna.

Txonta auzoaren egoerari dagokionez, Eibarko EAJ-PNV udal taldeak zuzenketak aurkeztu zizkion aurrekontuari zintzilik zeuden konpromisoak betetzeko, murriztu ziren partidak handitzeko eta beste batzuk sartzeko 50.000 euroko zenbateko batengatik, PSE-EE udal taldearekiko negoziazioa errazte aldera. Harrigarri egiten zaio talde honek orain exijitzea ideia gehiago aurkeztea, gauza ezaguna denean bere taldeko proiektuaren edukia aurkeztu duten baino zabalagoa dela.

En lo que a la situación del barrio de Txonta se refiere, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV presentó enmiendas al presupuesto con la finalidad de cumplir aquellos compromisos pendientes, incrementar las partidas que se habían reducido e incluir otras por importe de 50.000 euros para facilitar la negociación con el grupo municipal PSE-EE. Le resulta chocante que este grupo ahora exija que se presenten más ideas cuando es conocido que el contenido del proyecto de su grupo es más amplio de lo que han presentado.

Azkenik, gogorarazi du prozesu honen hasieratik planteatu dutela auzo-elkarteen eta udal taldeen arteko adostasun batera iritsi beharra auzoaren etorkizunari buruz; izan ere, zaila bada formazio eta kultur ekintzak adostea, are zailagoa da hirigintza-diseinua adostea; hartarako, beharrezkoa da Txontako Mahaia deitzea eta, hala, akordiok lortu ahal izatea bere taldeak aurrekontuari zuzenketa partzialak aurkeztea ahalbidetzeko.

Por último, recuerda que desde el inicio de este proceso han planteado la necesidad de un consenso con las asolaciones vecinales y entre los grupo municipales sobre el futuro del barrio, porque, si ya es difícil acordar las acciones formativas y culturales, más complicado resulta consensuar el diseño urbanístico; para ello, es necesario convocar la Mesa de Txonta y poder llegar así a los acuerdos que permitan a su grupo presentar enmiendas parciales al presupuesto.

**Aguirre Unceta** andreak frustrazioa adierazi du 2016tik aurrera

La **Sra. Aguirre Unceta** expresa su frustración ante la falta de cumplimientos

aurkeztutako zuzenketen betetze-mailaren aurrean, eta, horregatik behartuta egon dira berriz ere aurkeztera.

Bilkura honen deialdiaren orduari dagokionez, esan du sei batzordetan egon dela egun berean, eta zorionez irrati-tertulia bertan behera geratu dela. Horrek guztiak zaildu egiten du gaiak behar bezala aurkeztea.

de las enmiendas presentadas desde 2016, lo que le ha obligado a presentarlas.

Respecto a la hora de convocatoria de esta sesión, afirma que en el día de hoy debe asistir a seis Comisiones, aunque afortunadamente, se ha suspendido la tertulia radiofónica. Todo ello hace que sea muy difícil preparar los asuntos debidamente.

**Alkate-Udalburu jaunak** gogorarazi du Irabazi udal taldea izan zela 2017an aurrekontu-akordioa hautsi zuena turismo-bulego bat ezartzeko kreditu-aldaketa baten aurka bozkatuta, aipatutako akordioaren testuan debekatuta zegoenean kontra bozkatzea; eta horrek eragin zuela bi taldeen arteko harremanak etetea ordutik aurrera.

Bestalde, errespetatu egiten ditu talde bakoitzaren estrategiak aurrekontuari beren zuzenketak aurkeztean. Zentzu horretan, aipatzen du Euskal Herria Bildu udal taldeak osoko zuzenketa bat planteatu zuela, baina, irizpidea eman barik kontu zehatzen inguruan. Era berean, EAJ-PNV udal taldeak ez zuen 2018rako zuzenketarik aurkeztu Txontako auzoari buruz.

El **Sr. Alcalde-Presidente** recuerda que fue el grupo municipal de Irabazi quien incumplió en 2017 el acuerdo presupuestario al votar en contra de una modificación de crédito para la implantación de una oficina de turismo, cuando estaba expresamente prohibido en el texto de dicho acuerdo, rompiéndose las relaciones entre ambos grupos a partir de aquel momento.

Por otra parte, respeta las estrategias de cada grupo a la hora de presentar sus enmiendas al presupuesto. En ese sentido, relata que el grupo municipal Euskal Herria Bildu planteó una enmienda a la totalidad sin fijar, por tanto, su criterio sobre causas concretas. A su vez, el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV no presentó para el ejercicio 2018 enmiendas sobre el barrio de Txonta. En

Ondorioz, bere iritziz ardura denona da, izan ere, proposamen zehatzak plantea zitezkeen eta ez da egin.

consecuencia, establece que la responsabilidad es colectiva dado que podían haberse planteado propuestas concretas y no se ha hecho.

Azkenik, argitu du arazo bat egon zela Orfeoiraren ordezkaritzak baliorik zuen ala ez, baina azkenean zuzendu egin da.

Finalmente, aclara que existió un problema en cuanto a la validez de la representación del Orfeón de Debaberrena, pero que finalmente se ha subsanado.

**IRIZPENA**

**DICTAMEN**

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeko kide diren zinegotziek bilera egin aurretik izan dituzte eskuan Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak Txontako bizilagunen “La Plazoleta" Elkartearen izenean eta Ana Isabel Alonso Peña andreak Debabarrenako Orfeoiaren izenean aurkeztutako idatziak, Eibarko 2019ko Aurrekontu Orokorrari egindako alegazioak dakartzatenak; baita kontu-hartzaile jaunak idatzion inguruan egin dituen txostenak ere.

Los Concejales miembros de la comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio han dispuesto con anterioridad de los escritos presentados por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea en nombre de la Asociación de Vecinos de Txonta. La Plazoleta y Dª Ana Isabel Alonso Peña en nombre de la asociación “Debabarrenako Orfeoia- Orfeón de Debabarrena”, referidos a las alegaciones al Presupuesto General de Eibar 2019, así como los informes emitidos por el Sr. Interventor en cada una de las alegaciones

Gaiaren inguruan eta esandako txosten horietan jasotako irizpideei buruz eztabaidatu da.

Se ha debatido el tema y sobre los criterios y consideraciones recogidos en los citados informes.

Kontuan hartuta 2019ko martxoaren 27ko Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeko Lan Batzordearen irizpena.

Considerando el dictamen de la comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio, de 27 de marzo de 2019.

Udal Osoko Bilkurak erabaki honen bozketa egin du:

El Pleno de la Corporación, procede a someter a votación el siguiente

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

1.- Ezetza ematea Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak eta Ana Isabel Alonso Peña andreak aurkeztutako alegazioei, alegazio horietan ez delako islatzen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikuluak aurrekontuari erreklamazioak aurkezteko jasotzen dituen arrazoi horietako bat bere ere.

1.- Desestimar las alegaciones presentadas por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea, y Dª Ana Isabel Alonso Peña por considerar que las mismas no constituyen ninguno de los motivos recogidos por el artículo 17.2 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, para presentar reclamaciones al presupuesto.

2.- Behin betiko onarpena ematea Eibarko Udalaren 2019. jardunaldirako Aurrekontu Orokorrari hasierako onespen hartan jasotakoa oinarri.

2.- Aprobar definitivamente el Presupuesto General del Ayuntamiento de Eibar para el ejercicio 2019, en los términos planteados en la aprobación inicial.

Juan Luis Tueros Ormaetxea jaunak Txontako bizilagunen “La Plazoleta" Elkartearen izenean aurkeztu duen alegazioari ezetza ematea bozkatuta, Udal Osoko bilkurak erabaki du ezetza ematea aurkeztutako alegazioari aldeko hamar botorekin (PSE-EE), aurkako boto batekin (Irabazi) eta zortzi abstentziorekin (Eibarko EAJ-PNV eta Euskal Herria Bildu).

Sometido a votación desestimar la alegación presentada por D. Juan Luis Tueros Ormaetxea en nombre de la Asociación de Vecinos de Txonta, La Plazoleta; el Pleno de la Corporación, con diez votos a favor (PSE-EE), un voto en contra (Irabazi) y ocho abstenciones (Eibarko EAJ-PNV y Euskal Herria Bildu), acuerda desestimar la alegación.

Ana Isabel Alonso Peña andreak Debabarrenako Orfeoiaren izenean aurkeztutako alegazioari ezetza ematea bozkatuta, Udal Osoko bilkurak aurkeztutako alegazioari ezetza ematea erabaki du aldeko bost botorekin (PSE-EE), aurkako bederatzi botorekin (Eibarko EAJ-PNV y Euskal Herria Bildu eta Irabazi), eta abstentziorik gabe.

Sometido a votación desestimar la alegación presentada por Dª Ana Isabel Alonso Peña en nombre de la asociación “Debabarrenako Orfeoia- Orfeón de Debabarrena”; el Pleno de la Corporación, con diez votos a favor (PSE-EE), nueve votos en contra (Eibarko EAJ-PNV y Euskal Herria Bildu e Irabazi) y ninguna abstención, acuerda desestimar la alegación.

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta gaueko hamarrak hogeitabost gutxi izanik, jarduneko Alkate-Udalburu jaunak amaiera ematen dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veintiún horas treinta y cinco minutos, el Sr. Alcalde-Presidente en funciones levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

EL ALCALDE-PRESIDENTE,

IDAZKARIAK / EL SECRETARIO

Miguel de los Toyos Nazabal

Juan Agustín Villafranca Bellido